


Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com


Santiago Agorreta Garde

*Erroibar,
Nafarroa
(1921-2013)*

Aurkibidea



Biografia



Erroibar udalerriko Mezkiritz herriko Ureta auzoan jaioa eta bertan bizi izandakoa. Bertako euskara garbi eman ahal izan zuen azkena izan zen Santiago, seme-alabei euskara irakatsi arren, haiek batuarekin nahasia zutelako. Santiagoren emazte Perpetua, euskalduna, Etxalarren jaioa zen. Santiagoren ama mezkiritzarra zen, eta aita, Agorretakoa. Amari esker ikasi zuten Santiagok eta haren anai-arrebek euskaraz. Errota izan zuten gosedenboran. Elkarrizketa garaian, behorak eta behiak zituzten eta semeak gobernatzan zituen.

Zintak

ERB-001

- **Proiektua:** Alex Artzelus Mujika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artzelus, Alex
- **Data:** 2009-08-10
- **Iraupena:** 37 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Emalea:** Artzelus, Alex

ERB-005

- **Proiektua:** Gorka Lekarozen fondoa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lekaroz Mazizior, Gorka
- **Data:** 2007-10-27
- **Iraupena:** 31 min
- **Euskarria:** Audio digitala
- **Emalea:** Lekaroz Mazizior, Gorka

Pasarteak

1. Eskolara Mezkiritzera

- **Erref:** ERB-001/002
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:00:58. **Bukatu:** 00:02:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Lagunak bazuen eskola franko. Eskolara herrira, Mezkiritzera joaten zen. Baina berez Ureta ez omen da Mezkiritzekoa.

2. Mezkiritzen euskara galdu da

- **Erref:** ERB-001/003
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:02:06. **Bukatu:** 00:04:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Etxean euskaraz egiten zuten beti. Mezkiritzen ere baziren familia batzuk egiten zutenak, baina gero guztiz galdu zen. Baziren han euskararen kontrarioak, politikarekin nahasten dutelako.

3. Semeak eta ilobak ere euskaraz

- **Erref:** ERB-001/004
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:04:18. **Bukatu:** 00:05:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Semeak eta ilobak ere badakite euskaraz, baina berak emaztearekin, eta gurasoek elkarrekin erdaraz egin ohi zuten, eta ilobak ere lagunekin aiseago erdaraz euskaraz baino.

4. Lintzoainen euskara galdu da

- **Erref:** ERB-001/006
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:07:07. **Bukatu:** 00:07:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Lehen Lintzoain (ondoko herria) herri euskalduna zen guztiz, baina orain galduta dago. Kanpotik etorritako emaztekien eraginez omen.

Transkripzioa

- Eta hemen, Lintzoainen, euskeraz egiten da?
- Lintzoainen len iten ze dena euskeraz.
- Dena.
- Bai, bai. Baiña orai, akabo. Hor ere torri zire andre batzuk kanpokoak, ez zirela euskaldune, ta akabo, utzi dute. Ez dute.... gu bezala...

- O sea, andrea kanpokoa ta gizona hemengoa. Gero elkarren artian erderaz, ta umeei erderaz, ta...
- Klaro! Ta... oi... bazire zenbait etxe len iten zutela dena euskaraz ta orai batre. Utzi dute del todo. Ta... segureski, uek, andreak, ez baitzire euskaldunak, ta...
- Bai. Haiek haurrei erderaz egin ta...
- Haurrei, bai, bai.
- ... holan galdu.

5. Laborari lanak

- **Erref:** ERB-001/007
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:07:53. **Bukatu:** 00:10:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>"Brabana" (goldea) erabiliz iraultzen zuten lurra. Galsoroak lantzeko erabiltzen zuten</p>

6. Etxea birraitonak egina

- **Erref:** ERB-001/008
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:10:00. **Bukatu:** 00:12:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Baserria

Laburpena:

Uretako Jaurerriaren jabeak salgai ipini zuen eta Mezkirizetik hurbil dagoen arren, Esnotz herrikoak erosi zuten. Gero, jabe berriek zatika-zatika saldu zuten eta birraitonak erosi zuen lur zati bat eta orain bizi diren etxea eraiki zuen.

7. Soldadutza

- **Erref:** ERB-001/010
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:12:52. **Bukatu:** 00:13:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Hiru urte eta erdi soldadu Afrikan, Alcarquivir eta Laratxen. Gutxigatik ez zen gerrara joan.</p>

Transkripzioa

- Ta gero soldaduskara jun zineten? Jun zinen?

- E, soldadus...
 - Zenbat urtekin?
 - Pues e, hoguei urtekin. Pastu nitue hiru urte t´erdi soldadoskan.
 - A bai?
 - Bai, bai.
 - Ta non? Afrikan edo?
 - Afrikan, Afrikan, bai.
 - Ta...
 - Afrikan. Ta hori nere lagune ere han egon ze nerekin.
 - A bai, e?
 - Denbora guzian.
 - Arraiago be bai, e?
 - Bai, bai, bai, bai.
 - Ta Afrikan zein tokitan egon zinen?
 - E... Alcazarquivir ta Laratxe. Ez dakit aitu izen duzen. Alcazarquivir da herri bet, franko haundie, baiña dao... ee... itsasotik... hemendik Iruñe...
 - Non, basamortu aldera edo hola?
 - Eeee...
 - Ez?
 - Ez. Ta itsasora hurbil. Laratxe...
 - Itsasotik hurbil.
 - Bai. Laratxe dao itsaso baztarrean, ta hori, hogeita hamar edo... kilometro barnaxago.
 - Ya, ya, ya, ya.
 - Alcazarquivir.
 - Ta Gerra Zibilak e... zenbat urtekin harrapatu zintuen ba?
 - E, pues Gerra Zibila ni gelditu nitze... e... joateko puntuen.
 - A bai, e?
 - Bai, bai, bai.
 - Orduan urte asko dituzu!
 - Pues asko! Seguro!
 - Hagitz ongi zara, e?
 - Naiz...
 - Ze gure ai... nere aita, Gerra...

8. Soldadutza luzea II. Mundu Gerratik

- **Erref:** ERB-001/012
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:14:52. **Bukatu:** 00:15:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

<p>Gerra ondoren egon zen soldadu. Hiru urte eta erdi eduki zituzten II. Mundu Gerra zela eta.</p>

9. Adina eta osasuna

- **Erref:** ERB-001/013
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:15:46. **Bukatu:** 00:17:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna

Laburpena:

"Ja" egin gabe ezin daiteke egon. Gidatzeari utzi zion mokorretik operatu zutenean, eta damu da neurri batean, baina familiak hori gomendatu zion eta arrazoi zuten beharbada.

10. Errota zuten gose denboran

- **Erref:** ERB-001/015
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:17:52. **Bukatu:** 00:19:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Ez zuten goserik pasatu. Errota zuten eta han ehotzen zen inguruko garia. Eurek ere erosten zuten garia, eho eta gero saldu. Ahal zutenean ordaintzen zuen jendeak, orduan ez baitzegoen sosik. Ez zuten euren errota prezintatu.

11. Etxe eta leku ederra

- **Erref:** ERB-001/017
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:20:52. **Bukatu:** 00:22:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Baserria

Laburpena:

Leku ederra da, baina inguruan arbolak handitu egin dira, sastrakak ez dira garbitzen eta bazterrak ixten ari dira.

12. Morroiak eta neskameak

- **Erref:** ERB-001/019
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:22:30. **Bukatu:** 00:24:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Bederatzi anai-arreba izan dira. Neska eta "mutil" bat fijo edukitzen zuten. Morroi bat Lusarretakoa izan zuten. Gero Saraguetara joan zen bizitzen. Haren historia kontatzen du.

13. Lusarretan eta Saraguetan euskararik ez

- **Erref:** ERB-001/020
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:24:56. **Bukatu:** 00:26:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Hurbil dauden Artzibarko Lusarretan eta Saraguetan ez da euskararik egin bere denboran. Arrietan ere ez. Arreba euskalduna da, Esnotzen bizi da, baina ez zien seme-alabei euskaraz irakatsi. Orain damu dira.

14. Frantsesa ere ikastea komeni

- **Erref:** ERB-001/022
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:26:50. **Bukatu:** 00:28:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Euskara lehenetariko hizkuntza. Euskarak ez du trabarik egiten. Frantsesaren bazterretan bizi dira. Frantzian bizi da emaztearen ahizpa bat. Bere irudikoz, frantsesa ere ikasi beharko zen.

15. Behorak eta behiak Sorogainen

- **Erref:** ERB-001/024
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:33:40. **Bukatu:** 00:34:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Sorogainen, Urepeleko mugan behorak eta behiak dituzte. Semeak gobermatzen ditu.

16. Sagardoa

- **Erref:** ERB-001/026
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:35:15. **Bukatu:** 00:36:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Ez da "sagar-ardo" zalea izan. Lehen ez zen asko preziatzen sagardoa baina orain bai. Anitzek egiten dute.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com